

# Herri ekintzaren alde Gizarte borroka, uri xalo batean

Begira dezaiozun itsas-aldeko eskalari bati: Ez da hain txikia, bost millatik gora bizilagun dituzenez geroz. Ez da ere hain zertarua, ekonomia aldetik: probintzian bertan hamazazpi herri bakarrik daude behintzat, gure herri honek baino produzio handiagoa dakartean bizilagun bakoitzarekiko.

Uri zoragarri hau ez da, gehiegi handitu, beste anitz bezala, azken urteotan. Haatik, datozten urteetan, handitu eta hedatuko den zalan-tzarik ez dago.

Alde batetik, naturalezak eman dizkin aberastasunak ditu: itsasoa, ondartzak, ibaialdeak, mendiak. Guztiak, gizonen asedengarri eta pozkarri, izadiak uri xalo horretan ipiniak. Gauko gizarterako balio handiko aberastasunak dira hoiak, gozagarri diren ondasunak diralako, hain zuzen. Baita ere, haatik, egiaz ekonomi-balio handikoak. Hori bait da ondasunen egiazko balioa: gizakien ongarri eta pozkarri izatea. Baditu lurraldeak ere industriarientzat txist egokiak direnak. Hauk guztiak gatik, eta ballarako bizilagunek uri horretara duten joeragatik, turismo-uri izan dadin, eskualde horri begira behar zaio, legez erabakia dago.

Beste aldetik, bertako bizilagunak lan-premian daude uri horretan: batik bat emakumeak. Baiñan —kontuan hartu—, gizonzakoak ez dira peontza lanaren premian. Uri honetako lan-indarrak behar duan langintza, beraz, kalitatekoa da, ojizozkoa, ez peontza lana.

### HERRI AURRERAPENAREN ALDE

Pentsaketan dugunu rian, badira talde batzuk herriaurreragoaren kezka eta arduraz bizi direnak. Badakite, mende honetan, industriak erabakitzen duela uri baten lizitza nahiz heriotza. Industriak bihur dezakeela uri bat bizileku, hau da, egiazko uri: edota industriak ondatu eta galdtu dituela hainbat uri, ez bizileku, baizik nekeleku kondenaturik.

Badakite talde hoiak, bestalde, gaurregun, hemen, Euskal-Herrian edozein industria sartzea eta hartzea, atzerabide makurra dela. Aurreragile diranez, industriaren aldekoak dira, nola ez. Industri aurreragileen aldekoak, ordea, ez industri atzeratu eta atzeragileen aldekoak.

Kontzentzia honen bidez —uri-

gintza obra kolektiboa delaren jakiteaz, alegia—, urgintza eta industriatzea biek batera eraman nahi dituzte.

Zer dakar industria nagusi, jaurgo osoan, ezartzeak? Uria, industriaren menpeko; bizilekua, kapitalaren jopu; uria, ez bizigarri eta gozagarri; baizik salgai eta merkatalgo bihurtua.

Haatik, obra onik ez dago plantzintzarik gabe. Urigintzan, behintzat, ez da zalan-tzarik, puntu honetan.

Planari, berriz —espiriturik baldin badu—, xede eta elburuetatik dator. Xede eta elburuak, beriz, herriaren nahiak eta premiak zerbiteko dira, giza bide eta demokrazian behintzat. Nahi eta premia hoiak jakiterik ez dago, alabaina<sup>a</sup> herriari informazio zintzoa eman gabe eta haren iritzi garbiak eskatzeak.

### MATERIALISMOA ETA IDEOLOGIA ATZERAKOIA

Talde herrikoia eta aurreragile hauen kontra, beste talde bat ageri da, materialismoz eta ideologia atzeratuaz leiatzen.

Materialismo likitsa bait da, erabakien neurri-soil kapitalaren irabazia jartzea, industria berri horrek ingurunean —ekonomian nahiz kulturara—, eringo dituan onmesedei arretarik eman gabe.

Are likitsagoa litzake, zenbait lurjabe eta etxegilleren jokabidea, industri kaltegarriaren alde biltzen bait dira, espekulatioaren morkin aparretan lillaturik.

Ideologia atzerakoia bait da, herriaren aurrerapena, zarata, kea eta zikiñaren neurritan ikustea. Ondatzailea izatea bait da, urira zean industria datorren ez begirata. Urri eta eskas dauzkagun industri-lurak peontzarako lantegiez bete, eta gure gazteriantzat deirrioregan behar ditugun lantegi berri, aurreratu, onak, behin betirako uxatu eta hastantzea. Ideologiari atzerakoiena azaltzen dute burges talde hoiak, beren diru antsetan herriaren aurrerapen nahia eta bokazioa itozten dutelarik.

### KRITIKA ETA EKINTZA

Haatik, talde indartsu hoiaren kritika egitea beharrezkoa da eta ez da aski. Kritikaz gainera, besterik egin behar da. Lehendabizi, probintziako ordenamenduki uri bako-

# «NORMALIZAZIOA» AURRERA



«Txekoslovakia: okupatua bai, bainan ez irabazia.»

Odola zirakidala edan ditut Claude Roy-ren azkeneko lau artikuluak («Le Monde», 1970-IV-9, 10, 11, 12).

Nork irakurriko bestela? Txekoslovakia berri ematen digu frantses idazleak. Honek, 55 urtea, ezkertar eta sozialista ezaguna, ezin dezake bere amorrua izutu. Eta honela bataiatu du artikulu-sorta: «Txekoslovakia: okupatua bai, bainan ez irabazia». Claude Roy, 60 libururen idazle, albistari famatua, Europako Ekialdeko literaturalaria da.

Gauzak horrela, Roy-k ematen duen lekukotasunak balio handiago du enetaz.

«Herri horrek —dio— osoki harturik, Sobietarren kontrako gorrotza ernetzen du. Eta gorroto hori, ezintazuneko herria ez balitz, belgugarrira litzake... Herriak, ia-ia ahobatez, behiengo guztikoan, ez du bere baruan gorroto, mespretxu eta sa-

da hitzen bildur: ikusi duenak horitaratzen du.

Pragan farragarri agertu nahi izatekotan —dio— bi hitz hauek aski: «internationalisme prolétarien». Irribareak ez dira luzatzen.

Horra hor Moskuk, tankeen laguntzarain, saltzen duen «sozialismo zientifiko» delakoa.

Maitzaren 4-ean Brexnef etorri zen Moskutik. Eta bestetan izkutan dauden 500.000 «soldadu-aniak» bige-etara agertu ziren berriz. Kotxeak miatu, gazteen autobusak hustu eta zehatz begiratu, aideporturako kamino guziki itxi: horra hor anaien lana. Lan «anaikorra», noski.

Sobietar filmak ematen diren zinemetan, kristaurik ez: aspaldinik guztizkoa da boklota.

Langileen jokabidea ez da ilunagoa. 1968-an, Partidu-barreneko datok erakusten dutenez, %eko 42,0-k onhartzen zuten beraren jokabidea: 1970-ean 23,6-k besterik ez da erdira jexu dute langileriaren jaisera. Hiltabete labur batzutan, Brexnef eta Husakak.

Irratiaren bidez, beldurra zabalzen da, ikara gorria, stalinismoaren garairik beltzenetan bezala. Politziak, izkutan, eta barnetasun-eskubiderik arruntenak zapalduz, lotu dituen bandak, lau haizetara bareriatzen dira. Herriak horrela bada-ki: baita goiko puntuzkoak berak, baita agintariak berak, politziaren menpean bizi dira. Etxetan, bulegoetan, geletan beretan, politzia er- ne dago eta lanean ari. Kontuz, beraz. Herriaren jokabidea bistan da: mesfidatu, beldurtu, isildu, obedi- tu, morroin agertu.

Unibertsidadean zapalabide antze-koak. Hrbek ministroak saltzera deitu ditu denak: erakasleak, ikas- leak eta laguntzaileak. Unibertsida- de guzika elkarrin zelatan jarri du. Nola harrituko, ordea, Sstrougal, Novotnyren garaiko «gizon gogorra», Partiduaren bigarrena dela jakin- da?

Partiduaren barruan ere aurrera doa «normalizazioa»: «hamar-milaka izan dira baztertuak komunistak, as- paldiko eta berri, zahar eta gazte; eta fenomenoa hastapenetan baizik ez dago», dio Roy-k. Zelula guzi- guzietan, alderdikide guzi-guziek, ba- nan-banan, «azaldu» egin behar du- te Dubcek-en garaian egin zutena; eta, erakusten duten damuaren ara- bera, erabakitzen da haien etorki- zuna.

Bi zifra ematen ditu Claude Roy-k: 1) Langeleriaren Kondaira azaltzen zuten 800 erakasleak, baztertuak izan dira; eta beren ordez, inork ezagutzen ez zituen 800 «apparatchik» (aparato-kide) jarri. 2) Unibertsidadean, 250 erakasle baztertu dituzte (zeuden onenak gehienetan, bainan ez nahi bezin «otzanak» eta «etorkorrak»); beren ordez erdipur- diko 250 erakasle izendatuz.

Lizeoetan «beharrezkoa» da ikas- leak sobietar filmetara eramatea. Eta eskoletan, sobietar armada «anaia» ikustera eramaten dira hau- rrik, goikoen agindua hertsikiak be- teaz. Z. ARGIA-n, orain dela bi urte aipatzen genuen Milan Kundera idazle bikaina, baztertuen atean da- go. Zer esanik ez Vaculik eta Liehm. Intelektuak guziki gaizki ikusiak daude, beren buruz pentsatzen bait dute; eta ez Partiduak eta Moskuk adierazten duten bezala.

Roy-k hitz garatzen kondatzen di- gunez.

Ez, ordea, berak bakarrik. Neure begien aurrean daukat «La Vérité»-ren 544-gn. zenbakia. Eta 38-42 orrialdeetan (orain dela urtebete!) egoera beltz berbera salatu zuen Pierre Broué idazleak. Hots, jakina denez, «La Vérité» hau, azalak go- ri, trotskisten IV-gn. Internazionale- ko adizkaria da. Egiten dituen kri- tikak ez dira eskuindarrik.

Zenbait gogor gertatzen bazeu ere, egia hor dago: Txekoslovakia- ko «normalizazioa» ez da stalinis- moaren garaitzapena baizik. Ez da- go han sozialismoa bilatzerik, eta ez marxismoa: Pragan Moskuko burokrazia nagusitu da berriz, No- votny-ren garaian bezelaxe.

Zer egin du herriak? Nola jo- katzen du?

Claude Roy-k bi jokabide somatu

uste ditu:

- 1) Axolakaberian murgiltze a bata. Herriak badaki ez dago ezer egiterik. Mundua bi partetan za- tuita dago, eta Txekoslovakia Mos- kuren menpean dago, eta egongo da, Polonia eta Hungria mugitu zi- ren 1956-an; baina alferrik mugitu ore. Txekoslovakia ere altxa zen 1968-an; eta alferrik berriz ere. Ho- be da etsitzea, eta politikaz zeharo ahaltuztea.

- 2) Kultura-lanetan borrokatzea. Bestea, Intelektualen artean hau da, antza, nagusitzen ari den bidea. Beste mendeetan bezala, diote, na- zio-kulturari eutsi behar zaio ilu- naldi honetan. Egon gaitzen argi, buruz bederen, geure izanari atxi- kiz, «Les «homes de culture» ché- ques —dio Roy— savent d'expé- rience que toutes les fois qu'on a voulu écraser leur nation, on a tenté de la déculter, de leur arracher leur langue, de leur faire oublier leurs traditions, de leur voler leur héritage. Et que défendire leur langue, leur histoire, leur mémoire et leur pensée, c'est aussi un combat politique».

Et du Txekoslovakia guztiz etsi. Eta askatasunaren garra, beste anitz aldiz bezala, galdapean datza Pragan, isilik bainan ez itzalirik. Noizpait piztuko dela badakite eta badakigu. LARRESORO

## ARGIA

**Zuzendaria:**  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Naparrokoi-Kantauriko ta Ara- goiko Kaputxinoak argitaratua  
{Mayor, 50-1.-Burlada  
Pamplona)

**DONOSTIA-n:**  
Oquendo, 22-Telf. 26666

**ARPIDE SARIA:**

Barruan	215 pezeta
Korreo batasu- netako errietan	265 pezeta
Atzerrietako bes- te errietan	285 pezeta
Aldez Aurrez galdetu.	
Salmantan (Ale bakoitza)	5 pezeta

# CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)

— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutsa onen laguntzak: — gizarte-saillan  
— diruketa-saillan  
— lantegi - zuzendaritza saillan

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI  
PREMITIK IRTEZKEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak  
eskeintzen ditugu

Gure landolaz erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi	Gernika	Gazteiz	Azkoitia
Aretxabaleta	Zumarraga	Bilbo	Munguia
Elorrio	Elgoibar	Legazpia	Yurre
Barakaldo	Markina	Irun	Bermeo
Ondarroa	Bergara	Durango	Lasarte
Andoain	Altsasua	Amorebieta	Santurce
Plazentzi -Soraluze-	Eibar	Azpeitia	Zumaya
Oñati	Tolosa	Ernani	Donostia
Ormaiztegi	Pasal San Pedro	Zarautz	Iruña
Beasain	Errederri	Sestao	Deba
			Anzuola